

# B

BARREN

# “Umorea da azkena galdu nahi dudana”

Maria Angeles Zabala

TOKIKOM





# Haur kanta eta jolasen ikastaroa

2-4 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoentzat.

Noiz: apirilak 9

Non: Kultur Etxeko hitzaldi gela

Orduategia: 10:00-14:00

10:00etatik 12:00etara gurasoentzat bakarrik

12:30etik 14:00etara hurrekin jolastuko dugu

Zenbatekoa: 5€

Izen-emate epea:

martxoak 11



Informazio gehiago:

Elgoibarko Izarra

Ubitarte 4-behea

943 74 16 26 (Naiara)

atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com

**A**txu **t**xia **a**maika -REKEN EGONALDIA

**APIRILAREN 25ETIK 29RA**

**ZARAUTZERA GOAZ!**

**LH 3-6**

**SURF IKASTAROA**

**JOLASAK**

**MENDIA**

**IRTEERAK**

**GAUBELAK**

**IZEN-EMATE EPEA: MARTXOAK 11**

**INFORMAZIO GEHIAGO:**

**ELGOIBARKO IZARRAN**

**943 74 16 26 (NAIARA)**

**atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com**

## Lehen ere mozorratuta bizi gara



Jolas bat proposatu nahi dizuet. Datozen egunetan ziharo aldatuta urtengo gara kalera. Ez garanaren, izan nahi gendukenaren, izan giñanaren edo izango garanaren islada baietz izan kaleko gorputz ugari. Ni mozorro proposamenekin natorkizue. Erraza da egin biharrekua. Proposatzen dizuedan pertsonen artetik aukeratu bat, eta ahalegindu, egun batez, bera izaten. Ez dogu biziko berak bizi dabana, baiña papelak aldatuta, ikasi geinke zeezer alkarrengandik. Geure txikittasunian aldaketak eragin bageinkez ez garalako horren bide txarrian juango! Hona hamen proposamen batzuk (ez dira danak kabitzen):

Ortuak emandakuak saltzera basarritik plazara datorrena. Beriak etxian lagata, iñoren umiak zaintzen dabillen etorkina, beriek jan deixen. Abortatzarren 400 euro ordaindu bihar dittun 16 urteko gaztia. Egunero-egunero eskolan mutillek minigona altxatzen diuen 5 urteko umetxua. Lan berdiñian, alboko gizonezkuen soldataren hiru laurdenak baiño kobratzen ez dittuana. Derrigorrian, osorik sentitzeko ama izan bihar dabala sinistuarazi diuen gaztia. Parrandan nahi bezela jantzitta urten eta bere gorputzari buruzko milla eta bat komentarixo lizun, zikin edo mingarri jasaten dittuana. Egun osua etxian lanian pasatu eta iñork lan hori aitortzen ez diona. Bere bikotekidiak behin eta berriz jipoitzen dabana. Gabaz etxera bidian korrika hasten dana. Poliziaren eskutan bortxatua izan dana. Prostituta izatiazarren atxilotu dabena. Jakinduria haundixa izan arren, inguruak marginatu daban zaharra. Bere lige batekin Elgoibarko kalera harro urtetzen dan lesbiana.

Martxuak 8xa egunerokuan egun bat gehixago da euren bizitzan, baiña euren bizitza egunero-egunero lan eginda aldatu geinke. Danon esku dago. Bota sutara danori txikittan jantzi ziguen mozorro matxista. Egin pauso txikixak aurrera. Eta animo, zorionak eta eutsi gogor aurrez aittatutako eta aittatu gabe lagatako emakume danok! Biba zuek!

Ainhoa Mendibil

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetari: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Danon esku dago. Bota sutara txikittan jantzi ziguen mozorro matxista. Egin pauso txikixak aurrera”**

I. URTEURRENA

**JOSE ODRIOSOLA ARANBERRI**

2010eko otsailaren 28an hil zen, 77 urte zituela.

*“Kantuan agurtzen zaittugu, kantuan juan zera eta; hemen guk hala segittuko dogu zure ahotsaren oihartzunak lagunduta”*



ESKERTZA

**MARIA ORMAETXEA IÑARRAIRAEGI**

2011ko otsailaren 26an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# Maria Angeles Zabala

Bizitan galdu nahiko lukeen azkena umorea dela dio, eta pailazo deitzea baino gauza politagorik ez dagoela, gaur egungo gizartean barre eginaraztea handia delako. Ikaragarri gustuko du mozorrotzea eta antzetzea, eta koadrilan irtengo da bihar eta martitzenean; mozorrotuta, jakina. Izan ere, ilusio bereziz bizi ditu inauteriak Maria Angeles Zabalak (Soraluze, 1955). “Mozorrotuta, Maria Angeles izateari uzten diot”, adierazi du.

Ainara Argoitia

## “Umorea ezinbesteko osagaia da nire bizitzan”



**Elgoibarren zain-zain izaten duzue jendea inauterietan. Noizkoa duzu mozorrotzeko afizio hori?**

Ez daukat gogoan. Hona etorri nintzenean hasi nintzela uste dut, semeak 4-5 urte zituenean. Lehenengoz mozorrotu nintzenean gogoratzen naiz Elgoibarren ez zegoela ezer, eta umeak hartu eta Soraluzera joan nintzela. Mexikano jantzi eta otarrean oilar bizia hartuta joan ginen.

**Taldean irteten zarete. Bakarka baino nahiago duzu taldeka?**

Bai, beste giro bat sortzen da. Hala ere, nik beti esaten dut, besterik ezean bakarrik ere irtengo nintzela ni inauterietan.

**Mozorrotzeko afizio horrek eraman zintuen antzerkira?**

Beharbada bai. Mozorrotzea ere interpretazioarekin lotzen dut nik. Kontua ez da mozorro bat jantzi eta kalera irtetea bakarrik; hori baino gehiago da. Mozorrotuta, Maria Angeles izateari uzten diot, beste edozein izateko. Mozorrotzeak badu antzerkitik zerbait, baina antzerkia serioagoa da. Antzerkia egiteko asko ikasi behar da, eta beste konpromiso bat eskatzen du, azken batean apropos zeu ikustera joan den jendea duzulako aurrean, eta errespetua zor zaielako.

**Urte guzti hauetan makina bat jantzi jantziko zenituen, baina zein izan duzu denetan gustukuena?**

Lina Morganena. Tia Manuelaren soineko bat daukat, ehun urte baino gehiago dituen, eta aproposa oso Lina Morganena egiteko. Ikaragarri gustatzen zait. Taupada antzerki taldearen *Islada* antzezlanean ere jantzi nuen, *Nik zergatik* ez antzeztu nuenean. Lehiaketara ere aurkeztu nintzen Elgoibarren Lina Morgan jantzita, eta bigarren gelditu nintzen. Pantoja de Puertorrico zegoen orduan modan, eta mutiko bat aurkeztu zen Pantoja de Puertoricorena eginez. Berak irabazi zuen.

**Inauterietarako arropa zaharrak gordetzen dituzunetakoa zara?**

Gauza batzuk gordetzen ditut, bai, baina ez naiz gauza asko pilatu zalea. Hiru-lau jantzi daukat, baina urtean urtean egiten ditut mozorroak.

**Zeren arabera aukeratzen duzu zer jantzi? Eta aurten, zer?**

Ez, ez. Ez zait gustatzen zer jantziko dudan esatea. Eta zeren arabera, ba ez dakit, garbi esateko. Gustatzen zait Tolosara joatea, ideiak hartzeko. Domekan hara joateko asmoa daukat. Sekulakoa da Tolosa. Aho zabalik egoten naiz ni han. Jendeak sekulako irudimena dauka, eta ikaragarri disfrutatzen dut. Orain hiru bat urte lau lagun joan ginen Tolosara, astelehen batez. Mozorroa poltsan eraman nuen nik, baina hara iritsi eta ezin jantzi

gabe gelditu. Lina Morganen mozorroa jantzi, eta han hasi nintzen dantza batean. Azkoitira ere joan izan naiz. Han ere mugimendu handia izaten da, eta gustatzen zait han egiten duten lehiaketa ere. Elgoibarren horixe egiten da txarto. Lehiaketara aurkezteak ez luke izan behar 00:30ean Madalara aurkeztea. Nire ustez epaimahaikoek kalean ibili beharko lukete atzera eta aurrera, eta ikusi duten mozorro onena saritu beharko lukete. Hara joan behar izateak atzera ere botatzen du.

**Dendan erositako mozorroak edo zeuk egindakoak dituzu gustukuen?** Saltzen dauden horiek oso zatarrak dira. Egindakoak erostea barik mozorroa prestatzea gustatzen zait niri. Azaro aldera hasten gara mozorroa aukeratzeko, eta aurten egin ditugu dagoeneko bi edo hiru bilera. Entseguak ere egiten ditugu, nor zein izango den zehazteko eta gutxi gorabeherako kontu batzuk lotzeko. Serio hartzen dugu.

**Orain pare bat urte antzerkirako saltoa eman zenuen. Aurretik hasi ez izanaren damurik baduzu?**

Bai. Orain ere sarri esaten dut gustatuko litzaidakeela Elgoibartik kanpora irtetea ere, baina badago zerbait lotzen nauena. Ikaragarri gustatzen zait antzerkia, eta ez pentsa erraza denik antzezte, baina nik beti esaten dut desioarekin eta ilusioarekin edozer lortu daitekeela. Ez daukat lagatzeko asmorik behintzat. Oholtzan beste bat naiz ni. Ikusleak hor daudela ere ahazten zait!. Ez ditut hasierako urduritasunik gairiditu, baina askotan pentsatzen dut ona ere badela urduritasun puntu hori, norbere onena eman ahal izateko. Erronkatzat hartzen dut antzerkia, eta estuasunak pasatu arren, itzel disfrutatzen dut. *Is-lada* antzeztanarekin oso gustura ibili gara han eta hemen, baina Plaza Txikian egin genuen saioa izan da niretzat bereziarena.

**Etxean nola bizi dute zure afizio hau?**

Ohitu egin dira. Ni beti izan naiz pertsona alai eta txiste zalea, eta badakite umorea ezinbesteko osagaia dela nire bizitzan. Nire senarra, baina, oso serioa da. Gogoan daukat eskubaloiko txapelketa bat ikustera Madrilera joan ginen eguna. Tronpetak, turuta eta gainerako traste guztiek irten nintzen etxetik, eta senarrak halaxe esan zidan: “Maria Angeles, portatu zaitez”, eta nik, orduan: “Aizu, Txabola, zu izan zaitez zu, eta laga egidazu niri neu izaten”. Ikaragarri ondo pasatu nuen Madrilan. Getafen geneukan ostatura hartuta, eta akordatzeko naiz han sortu genuen *show*-az. Jolas parkean ibili ginen goizez, eta azukrezko bola arrosa horietako bat erosi, eta makila harekin taldea zuzentzen hasi nintzen. Afalostean, terrazan jarri eta *Boga*, *boga*, *Ene que risas hisimos*, *Maite* eta beste hainbat abestu genituen, lau ahotsetara. Jendea galdezka etortzen zen, eta “Donostiako orfeoikoak gara” erantzuten nien guztiei. Ume-umeak zirenetik danera joan gara gu seme-alabak ikustera. “Aupa Elgoibar”, “arbitro, pailazo” eta halaxe, isildu ere ez nintzen egiten ni eskubaloi partidetan. Behin kargu ere hartu zidaten, arbitroari pailazo esan niolako, eta nik orduan: “Pailazo esan diodalako kexu? Zer gauza politagoa pailazo izatea baino? Zuk badakizu zein handia den besteei barre egina-raztea?”. Partida hasita iristen nintzenean alabak beti esaten zidan: “Ama, pentsatu dut ez zinela etorri behar, ez zaitut entzun-eta”.

**Ez al dira zu ikustera joaten?**

Mozorrotuta irtetzen naizenean senarra behintzat inoiz ez da ni ikuste-

ra etortzen. Pailazo jantzi nintzen egun batean gogoratzen naiz pozetik iritsi nintzela etxera, diabolorekin jolasean, eta hala galdetu nion gizonari: “Ikusi nauzu, gizon?”. Berak, jakina, ez ninduen ikusi, eta zera esan nion: “Ba badakizu zer esaten dizudan? Neure itzalaz ere barrezka jardun dudala eta hala jarraitu nahi dudala hil arte”. Egia zen. Ispilu aurrean jarri, eta luze egon nintzen barrezka.

**Bizi dugun garaian barre egiteko arrazoirik ez dagoela diote askok.**

Bilatu egin behar dira arrazoiak. Nik beti esaten dut umorea dela azkena galdu nahi dudana. Izan ere, penak denok dauzkagu, baina umorea da horiei aurre egiteko biderik onena. Emozioek bizi duten emakumea naiz ni. Barre egitea gustatzen zait, baina negar asko egitekoa ere banaiz. Orain dela gutxi, egunean hamabost minutuz barre egiteak bitzta luzatzen duela entzun nion irratitari, eta lagunei esan nienean hilabetean ere ez zuela horrenbeste barre egiten erantzun zidan haietako batek. Tristeza da hori. Hara eta hona ibili zalea naiz ni.

**Zure jaioterriak beti izan du umorearekin lotura handia. Soraluzekoa izateak badu zerikusirik zure izateko moduarekin?**

Ziurrenik bai. Plaentxiarrak eta eibartarrak beti izan gara oso umoretsuak, alaiak, eta naturalak. Zenbat txiste ez ote dira egin! San Blas egunaren bueltan, egun horrek Plaentxian daukan garrantziaren harira ari ginela, halaxe esan zidan hemen bizi den plaentxiar batek:

“Plaentxi beste kontu bat da. Elgoibartarrak bereziagoak dira, espezialagoak”. Gure aita zen nire modukua, *panderetero* hutsa. Hona etorri nintzenean izena, abizena, eta ezizena ere galdu nituen. Plaentxin *Urramenditarra* gara, eta hemen, berriz, *Txabola* naiz. Amerikarren antzera nabil ni.

**Hara eta hona ibili zalea zarela diozu**

**eta gustuko duzula bidaiak eta irteerak antolatzea. Sagardotegira egindako irteera bateko kontuak ere iritsi zaizkizu.**

Demasa izan zen. Ptxintxura joan eta barruan kondoia duten intxaurrak erosi nituen sagardotegirako. Gero lagunei baseritar zapi bana jarri nien lepoan, eta bakar bati zapi zuri bat. Despedida bat “antzeztu” genuen. Sagardotegian gazte mordoak zegoen, eta intxaurrik onenak gure mahaian zeudela zabaldu genuen. A zelako barreak egin genituen, intxaurrak apurtu eta kondoiak bistaratzen zirenean. Ez dakizu ondo zein ondo pasatu genuen! Ikaragarri gustatzen zaizkit saltsa horiek antolatzea.

**Jende ezagunarekin argazkiak ateratzeko afizioa ere baduzu.**

Ez galdetu zergatik, baina, bai, gustatzen zait. Eta ez pentsa miresten ditudalako denik, baina telebistako saltsa ikaragarri gustatzen zait. Hala ere, programa bat zelan grabatzen duten ere ez dut ikusi... Gaur bertan esan diot alabari ordaindu egingo nukeela telebistan agertzearen. Donostiako publizitate agentzia batera joan nintzen argazki batzuk lagatzera, baina inork ez dit deitu. Gustura grabatuko nuke iragarkiren bat. Brometan sarri esaten diet koadrilakoei *vagisenil* publizitatu beharko nukeela nik. Mozorrotuta transformatu egiten naiz. Hori bai, ez zait gustatzen hurrengo egunean Lina Morgan deitzea. Eguna bizi dut nik, baina hurrengo egunean hor esango dute kalean: “Hor doa mutur beltz hori!”. *Jajaja*. Halakoxea naiz ni.

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,  
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA  
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN  
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK  
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres  
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,  
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai  
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus  
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes  
Rodriguez, Maialen Arnedo. INPRIMATEGIA  
Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE  
GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

#### Argitaratzailea:




#### Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UEMA



MENDAKO UEMA



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jarzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Esker onak Elgoibarko herriari.

Idatzi honen bidez, Arnaldo Askatu plataformako kideok ondorengo mezua helarazi nahi diogu Elgoibarko herriari, otsailaren 24ko *...eta orain zer?* mahai-inguru arrakastatsuari dagokionean:

Lehenik eta behin, eta mahai inguruak zuzenean nahiz Internetez izan zuen jarraipen zabala ikusita, zera adierazi nahi dugu: merezi izan duela antolatzen jarri dugun ahalegin eta ilusioak. Eskerrik asko bene-benetan herritarroi, senitartekoi eta ordezkarioi, zuen partaidetza eta babesagatik. Honen harira, esan baita sentitzen dugula herritar askok Herriko Antzokitik kanpo geratu behar izana.

Gure esker hona, era berean, hizlariei, erakutsitako borondate eta lan bikainarengatik, eta eskerrik asko baita ere Lanbroa tabernari, Internet bidez saioa zuzenean eskaintzeagatik. Eta azkenik, esker bereziak hurrengo lagunoi: Agarretxiki, Uxue, Lauzi, Txote, Raigoso, Ainara, Zaloa eta Imanol. Zuen aholku, babes eta laguntza gabe ezinezkoa izango litzatekeelako hau.

Bukatzeko, martxoaren 26an, zapatuan, Ikastolako frontoian egingo dugun bertso bazkari gonbidatu nahi zaituztegu. Laster izango duzue honen berri. Ia denon artean lortzen dugun bertso bazkari hori izatea Arnaldo askatzeko antolatzen dugun azken ekitaldia!

**Arnaldo Askatu Plataforma**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehieneko eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelera datorren eskutitzik argitaratuko.



Andres  
Alberdi

Arnaldo  
Askatu herri-  
ekimenak  
antolaturi-  
ko Herriko  
Antzokiko ma-  
hai-inguruko oihar-  
tzunak zeuzkaat  
oraindik buru-belarrietan

(Zorionak, Angel, aretoa leporaino  
bete zenuten eta). “Zer iruditu zaik?”,

galdetu hidan irteeran. “Sentsazio gazi-gozoek ditiat”, erantzun nian. Orduko sentsazio haiei hitzak jarri nahi eta, hausnarketan ibili nauk. Itxaropenari ez zioat leihorik itxi nahi, tinko eutsi nahi zioat haren suari. Mahaia-ingurura bildu, horrexegatik bildu ninduan: esperantza hori indarbertzera. Bai lortu ere neurri batean: Arnaldo ondo omen zegok (Mendi, Ainara eta Sebas ere halatsu izatea nahi nikek), eta esperantzaren izpi berririk bat Sortu dela eta, itxaropentsu omen zegok! Pozgarri zaidak.

## “Zerbaitek biziki kezkatu baninduen, bizi garen demokraziaren ustela izan zuan”

Baina etsipenaren iturria zeukaat jarioka. Han entzundako kontu batzuek ez zidatean onik egin. Min hartu nian solasean ziren lau jakitunek “... eta orain zer?” galderari klarki erantzuten jakin ez zutelako; min hartu nian zer naturaltasunez onartzen zen Arnaldo bahitu politiko bat izatea; min hartu nian ohartzean aspirinatxo bat bera ere ez zutela apatia kolektiboaren eta desaktibatze sozialaren aurka...

Baina zerbaitek biziki kezkatu baninduen, bizi garen demokraziaren ustela izan zuan. Askatasunerako ate izan beharko lukeen sistema politikoa kartzelarako bide “legal” bihurtu zigutek. Garai bateko demokrazia etika baten gainean zegoan eraikia; ideologia edota balio batzuen babesean egiten zuan politika; gaurko politika, ordea, zinismo, interes eta merkantilismo hutsa bihurtu zigutek. Boterea izatea duk kontua, banakoak zein herri osoak katigu izan. Ez diat uste hori merezi dugunik.



Anjel  
Ugarteburu

Ez joagu merezi, ez! Makina bat hartuak gaituk, merezi barik, Andres! Diktadura formalaren menpean, formal-formal jaso genduazan geureak eta bi. Batzuek halako bakea maite juek, gainera. Demokrazia hasi berritan, hala esaten ei juan Bergarako emakume heldu batek, kaleko manifestarien iskanbilak jasan ezinik: “Hemen Francoren dentadurie (diktaduria) bihe da!”.

Beste kolpe batzuk mingarriagoak dozak.

Demokrazia formalaren izenean, babesik gabe harrapatzen zaituztenak bai doilorrak! Itxura hutsezkoa, ustela dok disidentzia onartzen ez dakien demokrazia; gehiengo inposatuari esker. herri txikien garapena galerazten duena Nik, ostera, ez joat nahi etsipenean jausi. Nahiago, aukeran, itxaropenari eutsi. Horretarako, gure asmo eta idealen maleta prest eduki behar, noiz-nahi bidaian atera behar duten ibiltarien antzera. Tunisian eta Afrika iparraldeko beste herrialdeetan ere ez ei zitan zuhaitzetako orriak ere mugitzen orain dela gutxi, baina, itxura denez, ez zuan axolagabekeriak eragindako basamortuko kalma, askatasunaren haize eta euri erauntsiak iragartzen zituena baino.

## “Ustela dok disidentzia onartzen ez dakien demokrazia”

Nik errebolta etikoaren proklama egingo nikek demokraziaren izenean orrialde honetatik, Rubalcabak eta Marlaxka-lardaxkak BARREN astero irakurtzen dutela ez baneki. Bromak aparte, sentsazio gazi-gozoek, hire antzera, beste askok ere izango dituztela ziur niagok. Axolagabekeria ez dok nagusi gaur, ez Elgoibarren, ez Euskal Herrian. Jende asko jagok prest, maleta hurbil, justiziaren aldeko erreboltan parte hartzeko.

Jarri ezazu zure publizitatea

**B**

BARREN  
astekarian  
943 743 704





## Altzolako hilerrian hainbat hobekuntza lan egin ditu Elgoibarko Udalak

Ia 52.000 euroko aurrekontua izan dute hilerria berritu eta egokitzeako obretarako

**A**ltzolako hilerria berritu eta egokitze-ko hainbat hobekuntza lan egin ditu Elgoibarko Udalak. Hilerrirako bidea berritu, barandak jarri eta argiztapena hobetu dute, besteak beste. Hilerrri barruan, berriz, panteoien gunea eta horma hobien gunea batzen dituen eskilarak berritu dituzte, eta baranda bat ere jarri dute eskilaren bi aldeetara, irisgarritasuna hobetzeko. Hilerrriaren goiko partean egurrezko estalpe bat eraiki dute, horma-hobiak dauden lekua babesteko. Lan horiek barixakuan amaitu zituzten, eta, guztira, ia 52.000 euroko aurrekontua izan dute. Obra nagusiak hilabeteren buruan amaitu dituzte, eta berdeguneak egokitzea baino ez da falta orain. Hori, baina, udaberrian egingo dutela aurreratu zuen Ricardo Garate Hirigintza zinegotziak, barixakuan Alfredo Etxeberria



Elgoibarko alkatearekin batera hilerrian bertan eskaini zuen prentsaurrekoan.

Kaleko farolak pizten dituztenean piztuko dira hilerrira bideko hainbat argi ere, baina beste zenbait, hilerrirako bidekoak

zein hilerrri barrukoak, hileta egunetan barrarik piztuko dira, gorpua hilerrira eraman behar den unean. San Juan Bautista elizatik bertatik piztuko ditu hilerrira bideko argiak abadeak.

## Hiru eguneko itxialdia egin dute anbulategiko larrialdi zerbitzukoek



Gipuzkoako eta Bizkaiko Larrialdi zerbitzuetako (PAC) langileek hiru eguneko itxialdia egin zuten astelehenetik eguaztenera, Osakidetzako egungo agintariekin duten "gatazka luzearen korapiloa askatzeko egiazko negoziazioa es-

katzeko eta herritarren arreta pizteko". Elgoibarko anbulategian gauerditik aurrerako larrialdi zerbitzuak kentzea erabaki zuen joan zen ekainean Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, eta ordutik, arreta zerbitzu hori behar duten herritarrek Mendaroko Ospitalera joan behar izaten dute. Gauerditik aurrerako arreta zerbitzua kentzeko erabakia hiru irizpideren arabera hartu zuela jakinarazi zuen orduan Osasun Sailak: anbulategiari dagozkion osasun txartel kopurua (TIS), erreferentziako ospitalerako distantzia, eta arreta gune horretako jarduera edo aktibitatea. Elgoibarko anbulategiko langileak, baina, ez ziren konforme agertu Osasun Sailak emandako arrazoiekin, eta negoziazio eske jardun dute ordutik.

Itxialdiaren harira zabaldu duten komunikatuak dio azkeneko bederatzik hilabeteetan "behin baino gehiagotan eta bide ezberdinetatik" saiatu direla Osakidetzako gaur egungo agintariekin "egiazko" negoziazioa bilatzen, baina negoziazio guztiak "antzuak" izan direla: "Gauza berdinei bueltak eta bueltak ematen jardun ostean, negoziazioak hitz hutsetan eta luzamendutan galdu dira". Hala, gatazka egun dagoen geldialdi egoeratik askatuko lukeen proposamen konkreturik jaso gabe segitzen dutela jakinarazi dute.



## Pertsonaia **Mikel Ibañez**



Mikel Ibañez preso elgoibartarra baldintzapean libre laga dute, bere osasun egoera larriagatik (minbizia du, eta uztailaren 20an miokardio infartua izan zuen). Hilaren 11n ongi etorria egingo diote Elgoibarren, 20:00etan, udaletxeko plazan. Ongi etorri ekitaldian, gaixotasun larriak dituzten presoak eta zigorra betea dutenak ere omenduko dituzte, eta handik Kimetz elkartera joango dira, afaltzera. Afaritarako tike-tak Lanbroa eta Iturri tabernetan erosi daitezke, eta lehenbailehen egiteko eskatu dute antolatzaileek, lekua mugatua delako.

## Eguna **Martxoak 8**

Urtero bezala, emakumeen nazioarteko egunaren harira, hainbat ekitaldi eta aldarrikapen egingo dituzte Elgoibarren eta Mendaron, martxoaren 8aren bueltan. Udalek, Emakumeen Asanbladak eta Haizea Emakume Taldeak antolatutako ekintzetako batzuk sexuen arteko berdintasunaren inguruan hausnarketa egiteko bidea emango dute. Bertso saioa, elkarretaratzeak, antzerkia eta ipuin kontaketak egingo dira, besteak beste. Egitarau osoa Agenda atalean daukazue, eta baita eta [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) webgunean ere.

## Irudia **Miskiren kanpaina**

Miski gobernuz kanpoko erakundeak batutako dirua eramatera joan da Gemma Agirregomezkorta Perura. Aurtengo aurrekontua osatzea ez dela erraza izan aitortu du, baina ez da esku hutsik joan, hala ere. Hainbat lagun eta erakunderen esku zabaltasunari esker 33.500 euro batu ditu Miskik, Cuscoko haurrak eskolatzeko, eta hala, kanpainen lagundu duten guztiak eskertu ditu Agirregomezkortak.



## **43 garajetan sartu eta hiru auto ostu dituzte Upaiz Zaharra kalean**

Upaiz Zaharra kaleko garaje batean sartu eta 43 garaje itxitako atepak bortxatu zituzten lapurrek joan den astelehen goizaldean. Hainbat garajetatik baliozko gauzak ostu zituzten, eta baita hiru auto ere. Lapurrek lagatako arrastoak ikusita, profesionalek eginiko lana izan dela jakinarazi zuen Elgoibarko Udaltzaingoak: "Bazekiten zertan ari ziren. Behin garajeetan sartuta, gau guztia izan zuten bazter guztiak arakatu eta komeni zitzaiena lapurtzeko. Garaje itxietako sarriak bortxaz nola ireki ere ondo baino hobeto zekiten, eta, horretarako, gailu bereziren bat izango zutenik ere ez dugu baztertzeko, edonork ezin dezakeelako 43 garaje bortxaz ireki".

## **Jokoarekin arazoak dituztenak zapatueta ere batuko dira aurrerantzean**

Jokoarekin arazoak dituztenen elkarteak da Egun Bat, eta orain arte martitzenetan elkartu ohi ziren terapia egiteko. Martxotik aurrera, baina, zapatueta ere elkartuko dira, talde terapia egiteko. Aurrerantzean, astean birritan elkartuko dira Arretxe Kaleko egoitzan: martitzenetan 18:30ean, eta zapatueta 17:30ean. Informazio gehiagorako: 657 710 756.

## **Aurten 70 urte bete behar dituztenek kinto bazkaria egingo dute apirilaren 9an**

1941. urtean jaiotakoek kinto bazkaria antolatu dute apirilaren 9rako. Egun horretan, hildako lagunen aldeko meza egingo dute Santa Klara komentuan, 12:00etan, eta ondoren, autobusa hartu eta Loiolara joango dira, Kiruri jatetxean elkarrekin bazkaltzeko. 14:00etan izango da bazkaria. Interesatuak 60 euro sartu beharko dituzte aurrez honako helbide honetan: 3035 0007 22 0071121958.

Orduko 120 kilometroko abiadura muga murriztu egin nahi du Gobernuak.

## Zer iruditzen zaizu autobideetako abiadura muga orduko 110 kilometrora jaitea?




**Jose Mari Gurrutxaga**  
69 urte, jubilatua

Ez zait ondo iruditzen. Gaur egungo errepideak onak dira, eta orduko 120 kilometroko abiadura ez zait gehiegizkoa iruditzen. Hori murrizteak ere badauka arriskua, eta gerta daiteke txofer doanak lo hartzea ere. Gainera, seinale guztiak aldatzea sekulako dirutza izango da.



**Jon Astiazaran**  
31 urte, fresadorea

Oso gaizki. Orduko 120 kilometroko muga ere gutxiegi da. Orain dela 30 urte eta gaur abiadura muga bera izatea ez da logikoa, autoak eta errepideak asko hobetu dira-eta. Alemanian leku batzuetan abiadura mugatzen dute, baina bestela ez dago mugarik. Isunak jartzeko neurria da.



**Jose Antonio Garcia**  
51 urte, taxista

Gaizki iruditzen zait. Isunak jarri eta diru gehiago batzeko neurria dela iruditzen zait. Nahi duenak badu gaur egun ere polikiago joateko aukera. Guk asko gidatzen dugu, eta egungo autoekin orduko 120 kilometrora ere geldirik zaudela dirudi. Errepide onak ditugu, eta azkarrago ere joan daiteke.



**Marisol Arrillaga**  
44 urte, irakaslea


Ez dut gaizki ikusten. Nire ustez gaur egungo abiadura muga handiegia da, eta polikiago ere joan daiteke. Neurri honekin heriotza gutxiago egongo direla uste dut, gehiegizko abiadurak istripu asko eragiten dituelako. Orduko 120 kilometrora ez dago erreakzio aukerarik.

## ■ SEMAFOROA



**San Frantzisko kaleko baldosak solte daude:** "San Frantzisko kalean baldosa asko solte daude, eta euria egiten duenean baldosa horietakoren bat zapalduz gero, busti egiten gara. Behin baino gehiagotan gertatu izan zait, eta hanka guztia zikinduta eta bustita geratu izan zait. Herriko beste leku batzuetan ere gauza bera gertatzen da, Urasandin, esate baterako, beraz, baldosak ondo lotzea eskatu nahi nuke. Mila esker".

**Pista Beltzeko lurra oso egoera txarrean dago:** "San Roke auzoko Pista Beltzaren egoera tamalgarría eta arriskutsua da. Lurra zulatuta dago, eta euria egiten duenean urez betetzen dira zulo guztiak. Ingu-rune hori korrika egiteko aproposa da, baina egoera horretan ezin da korrika egitera joan. Lehenbailehen konpon-tzeko eskatzen diogu Udalari".



Zuen kezak, galderak edo txalokak bidaltzeko:  
[barren@elgolbarkolzarra.com](mailto:barren@elgolbarkolzarra.com) 943 744 112



## Erretratu zaharra



**1947**

Aste honetako erretratu zaharra Marisol Etxanizek ekarri du BARRENERA. 1947. urtekoa da, eta Sallobente auzoko Arostegi baserrian aterata dago. Egun hartan auzoko hainbat lagun batu ziren baserrian, gari jotea egiteko. Gogora ditzagun zeintzuk bildu ziren egun hartan.

**Goiko ilaran:** Pilar Ziaran (†), Lorenzo Esnaola, Jose Mokoroa (†) (kapeladuna), Josefa Unastei (†), Casimira Etxaniz (†), Jose Mari Zabaleta (†), Juanito Agirregomezkorta (†), Justo Agirrebeña, Manuel Sodupe 'Gelatxo'(†), Musillonekua (†), Pedro Sodupe 'Gelatxo', Santiago Osoro (†) 'Katxo', Jose Mari Goikoetxea (†) (goi-goian dagoen mutila).

**Erdiko ilaran:** Maria Etxaniz, Valerio Esnaola (†) eta Maria Osoro (†). **Behean:** Jose Mari Agirrebeña (†), Maria Luisa Agirrebeña, Katalina Iriondo (†), Miguel Agirrebeña, Marisol Etxaniz, Ladis Unzueta, Domingo Goikoetxea (†), Juan Miguel Esnaola (†), Juan Jose Etxaniz eta Pedro Etxaniz.

I. URTEURRENA

## JOSE MARI REGIL IRURETA

2010eko martxoaren 1ean hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 5, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztatik.



# MUTUAVENIR:

## EHUN URTETIK GORA ASEGURUDUNEI ZERBITZURIK ONENA ESKAINTZEN

### HISTORIA APUR BAT

**E**z daukagu telebista piztu eta edozein albistegi ikustea besterik, gaur egun, bizitzeak berak ere arriskua dakarrela ikusteko. Pertzepzio hori ez da berria; gizateriaren historia luzean beti izan da hala, nahiz eta arriskua eragiten duten faktoreak aldatu diren neurrian, pertzepzio hori bera ere aldatuz joan den. Eta jakina, sentsazio edo sentipen hori ez da inoren gustukoa. Horregatik, arrisku hori arindu edo saihestuko luketen sistemak bilatzeko ahalegina etengabea izan da.

Arazoi horregatik, 1905. urteko urtarrilaren 29an, Mutua Pamplona, gaur egungo Mutuavenir, sortu zen Gaztelu Plazan zegoen Nafarroako Merkataritza eta Industria Zirkuluaren egoitzan.

Eraikuntza alorreko hainbat enpresaburuk makina bat bilerara egin zituzten orduan, errepide istripuen gainean atera berri zen legea zela eta, euren aseguru-etxeek tarifak igoko zizkietela jakinarazi zietelako.

Ehun urte baino gehiago joan dira ordutik, eta denbora horretan Mutuavenir asko garatu da, baina bazkide sortzailerik ezarritako oinarri eutsi die beti: administrazio zintzoa

eta zorrotza, kudeaketa azkarra eta arduratsua, eta beste ezeren gainetik, garbia eta gardena. Oinarri sendoak, negozioak dibertsifikatuta, hazteko, zabaltzeko eta zerbitzurik onena eskaintzeko aukera eman dioten oinarriak, azken batean.

Baina hori guztia ez litzateke posible izango erakunde hau bere balio eta ezaugarriekiko lehiala izan ez balitz: bezero eta bitartekarietako gardentasuna, gertutasuna, malgutasuna, eta aldaketetara eta eskari berrietara moldatzeko erraztasuna, bezeroak eskaintzen dion guztia egiteko eta lortzeko konpromisoa, sendotasuna, kontratatutako konpromisoetarako esperientzia eta kaudimena, eta azkenik, baina horregatik ez garrantzia gutxiagokoa, bezeroarekiko arreta, ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko.

Premisa horiekin, guztien beharrak asetzea da Mutuavenirren egiteko nagusia; asegurdun eta bitartekari guztien beharrei erantzutea, norbanako bakoitzari ondoen datorkiona eskainiz. Etxeko aseguru, komertzioetako aseguru, bizilagunen elkarreana, bizitza aseguru, autoaren aseguru... Hori guztia eta gehiago.



### BULEGOKOekin HARREMANETAN JARTZEKO DATUAK

**mutuavenir:**  
seguros y servicios

EGOITZ MORA

Giza Eskubideen Enparantza, 1 behea.  
Telefono zenbakia: 943 033 268  
[e.mora@mutuavenir.com](mailto:e.mora@mutuavenir.com)



**: behar duzun aseguruu dugu**  
**Galdetu eta esango dizugu**

**Egokran Gestión**  
 e.mora@mutuavenir.com  
**Mutuavenirreko agente eskusiboa**  
 Giza Eskubideen plaza, 1 (behea)  
 20870 Elgoibar  
 Tel: 943 033268 @reg. ik: M0102B75031907

**mutuavenir:**  
 aseguruak eta zerbitzuak

- ETXEBIZITZA 
-  MERKATARITZA
- KOMUNITATEAK 
-  ETE (PYME)
- ISTRIPUAK 

## ETA ORAIN ELGOIBARREN

**G**aur egun, Mutuavenirrek Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian, Araban, Errioxan, eta Madrilen ditu bulegoak. Bederatzi sukurtsal dira guztira, gure aseguru etxearengan konfiantza jarri duten asegurudunei eta bitartekariei zerbitzua ematen dien bederatzi sukurtsal.

Egoitz Mora izan da Mutuavenirren sinistu duten pertsona horietako bat. Etxe honetako langilea da Egoitz, eta Kristina bere lankidearekin batera, gogotsu ekin dio Elgoibarren lanari, inguru honetako aseguruaren merkaturaren erreferente bihurtzeko ilusioarekin. Giza Eskubideen Enparantzan dauka bulegoa, eta bera da bulego horretako arduraduna. Hainbat helburu lortzen da saiatuko da Egoitz: Elgoibarko asegurudunen beharrei kalitatezko zerbitzu batekin erantzutea, eta asegurudun horiengandik gertu egotea, irtenbide eraginkorrek eta pertsonalizatuak eskaintzeko. Guztiok ez gara berdinak, eta horregatik, asegurutzen duguna ere ezberdina izaten da. Horregatik, Elgoibarko Mutuavenirrek bezeroen eskaeretara egokitutako irtenbide eraginkorrek, bakarrak, eta pertsonalizatuak eskaintzen ditu.

Mutuavenirren aseguru eskaintza zabalak aseguru pertsonaletatik hasi (bizitza aseguru, osasun aseguru,

istripuetarako aseguru...) eta ondareen aseguruetaraino (etxeko aseguru, PYME enpresa txiki eta ertainentzako aseguruak, autoko aseguru...) hartzen du, eta horri eskaintzen duen berme handia gehitu behar zaio. Baita, ere berean, prezio lehiakorrek eta saldu osteko zerbitzu bikaina ere. Horrek guztiak kontuan hartzeko aseguru etxea egiten dute Mutuavenir, gutariko edonork halako zerbitzuren bat kontratatu behar duenean aintzat hartu beharrekoa.

Gero eta gehiago dira Mutuavenirrengan sinesten dutenak, eta emaitzek argi erakusten dute zein balekoa den. Entitate sendoa da, gertukoa, bere asegurudunei entzuten dakiena, haien beharretara egokitzen dena, eta behar duten guztian laguntzen diena. Horregatik guztiagatik, Mutuavenirrek uste du aseguruaren merkaturaren erreferente bihurtuko dela Elgoibarko bulegoa, eta jakina, laguntza behar duten guztiak lasai asko joango direla bulegora, Egoitzek eta Kristinak behar duten guztian lagunduko dietelako. Azken batean, pertsonen laguntzeko pertsona taldea gara gu, eta hori azkenean igarri egiten da.

## Arnaldo Otegi preso badute arrazoi politikoengatik dela adierazi zuten egueneko mahai inguruan

Herriko Antzokia txiki gelditu zen, eta Internetez 300 lagun inguruk jarraitu zuten saioa

**A**rnaldo Otegi bahitu politiko bat da, eta mendekuz dute preso". Martxelo Otamendi *BERRIA* egunkariko zuzendariaren hitzak dira, baina bere egin zituzten eguenean Arnaldo askatu, politika askatu plataformak antolatu zuen mahai inguruan parte hartu zuten gainerako hiru hizlariak: Mariano Ferrerrek, Jone Goirizelaiak eta Xabier Arzalluzek. Otegiren abokatu Jone Goirizelaiak esan zuen Espainiako Auzitegi Nazionalako fiskalburuak ere aitortu ziola bere garaian Otegi preso edukitzearen arrazoiak politikoak direla. "Momentu honetan ezker abertzalea indarrean dago, eta ez zaigu interesatzen Otegi bezalako pertsona karismatiko bat kalean egotea". Halaxe esan omen zion fiskalburuak, epaiketa saio baten ostean. Hala, "Estatuak iritziz aldatu arte", Otegi kartzelan jarraituko duela zehaztu zuen Goirizelaiak. Herriko Antzokia bete egin zen mahai ingururako, eta hainbat lagun kanpoan gelditu ziren, lekurik ez zegoelako. Internetez, berriz, 300 lagun inguruk jarraitu zuten saioa.

Bateragune izenarekin ezagutzen den auziagatik [56/09 auzia] kartzelatu zuten Otegi, Batasunaren Mahai Nazionala berriro osatu nahian aritzea leporatuta, eta gaur egun, Logroñoko kartzelan dute preso, "barkatuta" [Navalcarneron bakarrik topo egin



*Martxelo Otamendi, Mariano Ferrer, Jone Goirizelaia, Xabier Arzalluz eta Hasier Etxeberria.*

zuten behin beste euskal preso batekin; gainerako espetxeetan bakartuta izan dute beti]. Egoera gogor horretan, hala ere, "ondo" ikusten duela esan zuen Goirizelaiak: "Ondo dago, pozik dagoelako". Pozik, politikak hartu duen bidearekin.

Hain justu ere, horixe izan zen mahai inguruan landu zuten gai nagusietako bat: politika, eta, bereziki, ezker abertzaleak sortu berri duen Sortu alderdia. Sortu hauteskun-

deetan egon beharko ote litzatekeen galderari baietz erantzun zioten guztiek, baina Hasier Etxeberriak hala izateko aukerarik ikusten duten galdetzean, zalantza egin zuten. "Orain hiru aste galdetu izan bazenit ezetz borobila erantzungo nizun, eta orain apustu egin beharko banu ere, ezezko esango nuke, baina ez nuke kafe bat baino gehiago jokatuko", esan zuen Mariano Ferrerrek. Horren harira, Goirizelaiak esan zuen Sorturen estatutuei erreparatuta ezinezkoa izan beharko litzatekeela alderdi hori legez kanpo uztea, baina presio egitera deitu zituen herritarrak. Bide beretik jo zuen Martxelo Otamendik ere: "Atxikimendu kuantitatiboak baditugu, baina atxikimendu kualitatiboak behar ditugu, Auzitegi Gorenak presioa sentitu dezan". Aro itxaropentsua hasi dela gehitu zuen Ferrerrek gai honen inguruan. "Denbora gehiegi egin dugu ETari begira, eta ezker abertzalea bera ere ETaren preso izan da urte askoan. Bukatu da ETari begira egote hori. ETak bere masa politikoak eskatzen diena egin behar du", esan zuen, askoren gustukoa izango ez zen zerbait esan behar zuela jakinarazi ondoren.



*Herriko Antzokia txiki gelditu zen, eta hainbat lagun kanpoan gelditu ziren.*



# Felix Conde pilotari elgoibartarrak Euskal Liga irabazi du kadeteetan

Elgoibartarrak Segurako taldean dihardu aurten

**F**elix Conde pilotari elgoibartarrak Euskal Liga irabazi du kadeteetan, Xanet Imaz Segurako atzelariarekin batera. Partida "luzea eta gogorra" izan zela adierazi dute zaleek. Conde eta Imaz bikoteak bost tantuko aldeari eutsi zioten partida guztian zehar, eta azkenean 22-19 irabazi zioten Iruretagoiena eta Mujikari. Pilotari elgoibartarrarentzak lehenengo denboraldia da Segurako taldean. Xanet Imazekin jokatu du txapelketa guztia, eta bikote sendoa direla erakutsi dute.



Felix Conde, eskuinean.

## Arnoateko Igoera jokatuko dute bihar Mendaron

Aingeru Guardako jaien barruan, Arnoateko Igoera antolatu dute biharko. 11:30ean irtengo dira korrikalariak Plaza auzoko tunelpetik, eta 4,5 kilometroko igoeran 500 metroko desnibela gainditu beharko dute. Antolatzaileek denborak hartuko dituzte, eta Arnoate gainera iristen diren lehenengo hirurek jasoko dute saria. Izenemateak bihar bertan egingo dira, lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago. Parte-hartzea doan izango da, eta lasterketa amaitzen denean hamaiketako eskainiko dute antolatzaileek.

## Pilota Eguna ospatuko dute bihar Elgoibar Ikastolan

Elgoibar Ikastolak Pilota Eguna antolatu du biharko. 10:30ean hasita, 6 eta 14 urte bitarteko umeek pilota partidak jokatuko dituzte, eta eguerdi aldean banatuko dituzte sariak. Pilota zaleek, beraz, Ikastolako frontoian dute bihar zita.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Leioa 1 – Haundi 1 (3. maila)  
Antzuola 1 – Elgoibar 1 (Ereg. Pref.)  
Zarautz 0 – Elgoibar 1 (Ohorezko jub.)  
Elgoibar 2 – Añorga 1 (Kad. A)  
Aurera Ondarroa 5 – Elgoibar 2 (Kad. B)  
Elgoibar 3 – Arrasate 1 (Ohorezko inf.)  
Hondarribia 1 – Elgoibar 2 (Inf. Txiki)  
Elgoibar 2 – Aretxabaleta 1 (Aleb.)

### ESKU PILOTA

#### Udaberri Txapelketa

Murumendi 11 – Lagunak 22 (1. maila nag.)  
Eibar 22 – Lagunak 11 (1. maila nag.)  
Ilunpe 22 – Lagunak 17 (1. maila jub.)

#### Debarroko txapelketa

Eskoriatza 20 – Lagunak 22 (Nag.)  
Aretxabaleta 5 – Lagunak 22 (Kad.)

### ARETO FUTBOLA

Elorrioko 3 – Concepto Createch Elg. 6 (1. maila)  
Zarautz 3 – King-Kong 1 (Jub.)

### XAKEA

Arrasate 0 – Mekatar Elg. 4

### ESKUBALOA

Ereintza 31 – Alkorta Elg. 28 (Sen. mut.)  
Beristain Elg. 23 – Amenabar 15 (Jub. mut.)  
Txariduna Elg. 33 – Aloña Mendi 32 (Kad. mut.)  
Aiala Zke 25 – IMH Elg. 27 (Kad. neska.)  
Aterpe Elg. 19 – Pulpo 19 (Inf. mut.)  
Ikus Elg. 19 – Leitzaran 18 (Inf. neska.)  
Tecnifuelle Elg. 22 – IES 19 (Sen. neska.)  
Grupo Eibar Elg. 27 – San Adrian 22 (Inf. neska.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 5

16:00 Concepto Createch Elg. – San Jorge (1. maila)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 5

16:30 Haundi – Amurrio (3. maila)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Domeka, 6

11:30 Alkorta Elg. – Arrasate (Sen. mut.)

### ESKU PILOTA

Barbakua, 4

21:30 Lagunak – Eskoriatza (1. maila nag.)

22:30 Lagunak – Andoain (Pala)

Domeka, 6

11:00 Lagunak – Ozkarbi (Nag.)

## Hamabi elgoibartarrek hartu zuten parte joan zen zapatuan Zumaiako Herri lasterketan



469 lagunek amaitu zuten Zumaiako herri lasterketa joan zen zapatuan, eta horietatik, hamabi elgoibartar izan ziren: zortzi mutil eta lau neska. Korrikalariak 10,2 kilometroko ibilbidea egin zuten. Josean Ruiz del Rey izan zen elgoibartarren artean bizkorrena 34:20 denborarekin, eta nesketan, Ainhoa Lendinez izan zen lehenengoa 40:26 denborarekin. Sailkapenak Urgazi triatloi taldearen webgunean ikusi daitezke: [urgazi.blogspot.com](http://urgazi.blogspot.com)

## Euskaldunon elkarten mugimenduak etorkizuneko oinarriparak onartu zituen zapatuko kongresuan

Elgoibarko Izarrako zazpi lagunek hartu zuten parte ekitaldian

**B**ilboko Alhondegian egin zen joan zen zapatuan XXI. mendeko Euskaldunon Elkarten Mugimendua-ren Kongresua. Han, euskara elkartetako 206 lagunek parte hartu zuten, eta mugimendu horren etorkizuneko oinarriak eta helburuak onartu zituzten, urtebeteko gogoeta-prozesuari amaiera emanaz. Elgoibarko Izarrako zazpi lagunek hartu zuten parte kongresuan, eta Imanol Larrañaga dinamizatzaileak ponentzia bat irakurri zuen, mugimenduak onartutako txosteneko lau punturen gaineko defentsa eginez. Ponentzia hori irakurtzeko aukera duzue [www.elgoiBARRREN.net](http://www.elgoiBARRREN.net) atari digitalean.

Urtebeteko gogoeta-prozesuaren azken urratsa izan zen Bilboko Kongresua. 250 lagun baino gehiagok hartu dute parte prozesuan, eta mugimenduko kideen ustez, zapatukoa mugarrizko izango da gizarte-mugimendu horren ibilbidean. Orain arteko lanaren balorazioa egin da, etorkizuneko lan-ildoak markatu dira, eta, orain, erabakitako guztia martxan jartzeko une iritsi da. Ziklo berri baten atarian daudela aitortu zuten, bai herrietako euskara



elkarteak, eta baita euskara elkarten federazioa den Topaguneak ere.

Euskararen biziberritze prozesuan jakintzak eta pentsamenduak duten garrantzia azpimarratu zen Kongresuan, eta diskurtso propioa osatu eta bazkideen artean zabaltzeko beharra ere bai. Hizkuntza politika ezagutza soziolinguistikoan oinarrituta egon behar dela aldarrikatu zuten, eta ezagutza horien baitako adostasun soziala eta politikoa landu nahi dute.



### Arratsaldean, jaia

Goizeko kongresuaren ondoren, Bilboko Kafe Antzokira joan ziren bazkaltzera, eta arratsaldeko 18:00ak aldean jaia hasi zuten. Jai horretan euskal kulturagintzako hainbat artistak parte hartu zuten, eta tartean, Jon Gurrutxaga musikari elgoibartarrak bi abesti kantatu zituen.

Argazkiak eta informazio gehiago [www.elgoiBARRREN.net](http://www.elgoiBARRREN.net) atarian.

## 44 ikaslek hartu zuten parte Andoaingo piano jaialdian



Andoaingo VI. Piano Jaialdian 44 piano ikasle elgoibartarrek parte hartu zuten joan den asteburuan. Eta ez ziren esku hutsik itzuli Andoaindik. Ikasle elgoibartarrek 34 domina eskuratu zituzten: hamazazpi urrezkoak, hamalau zilarrezkoak eta hiru brontzezkoak. Janire Rodriguezek eta Sofia Arregik, bate-tik, eta Miren San Andresek eta Olaia Garcia-Abadek, beste-tik, aipamen bereziak lortu zituzten pianoa lau eskutara jotzen erakutsi zuten abileziagatik.

Inazio Bereziartua musika eskolan pianoa da instrumentuaren erregea, eta Susana Marciano piano irakaslearen arabera, betidanik horrela izan da, gainera. 386 ikasle dabilta gaur egun musika eskolan, eta %22k pianoa jotzen dute. Pianoaren atzetik, gitarra, bibolina eta saxofoia dira ikasleen gustuko-enak. Datu gehiago, [www.elgoiBARRREN.net](http://www.elgoiBARRREN.net) atari digitalean.



# Gaur hasi eta martitzenera bitartean ospatuko dira inauteriak Elgoibarren eta Mendaron

Bihar gauean mozorro lehiaketa egingo dute Madalako parkean

**E**lgoibar Ikastolako euskal inauteriarekin hasiko dira gaur arratsaldean inauteriak. 15:15ean irtengo dira ume eta irakasleak Ikastolatik, eta Plaza Handian dantzaldia eskainiko dute ondoren. Inauterietako egun handia, baina, bihar izango da. Atxutxiamakak eta Udaleko Kultura Sailak hainbat ekitaldi antolatu dituzte, eta arratsaldetik gauera arte egongo da non aukeratu. Arratsaldean, Atxutxikaraokea eta mozorroen desfilea egingo dute Plaza Handian. Ondoren, Mautitxa txarangaren kalejira izango da, eta gauerako, mozorro lehiaketa antolatu du Atxutxiamakak. Parte hartu nahi dutenek Madalako parkera agertu beharko dute. Sari banaketa goizaldeko 1:00ak aldera egingo dute. Mendaron, bestalde, txokolate jana, disko festa eta karaokea antolatu ditu Arno Guraso elkarteak zapatu arratsalderako.

## Mozorroen elkarretaratzea

Martitzen arratsaldean mozorroen elkarretaratzea egingo dute Plaza Handian, 16:30ean. Kiki, Koko eta Moko pailazozen ikuskizuna ikusteko aukera izango dute Plaza Handira urreratzen direnek, eta ondoren, Mautitxa txarangaren kalejirak alaituko ditu kaleak.



Zaharren egoitzan, bestalde, Gelatxo orkestraren musika emanaldia eta mozorro lehiaketa antolatu dituzte, 18:30etik aurrera. Inauterietako egitarau guztia agendan duzue.

## Gaztetxea bete egin zen zapatuko 'Holidays in Bardulia' musika jaialdian



Punk-oi! taldeek *Holidays in Bardulia* musika jaialdia antolatu zuten joan zen zapatuko Elgoibarko gaztetxean, eta Euskal Herriko hainbat lekutatik etorritako 800 lagun inguru bildu ziren. Gipuzkoako bederatzi musika taldek hartu zuten parte, eta goizaldeko ordu txikiak arte iraun zuen jaiak. Antolatzaileak gustura agertu dira Elgoibarko jaialdiak izan duen harrerarekin, eta Gipuzkoako Punk-oi! eszena osasuntsu dagoela adierazi dute. *Holidays in Bardulia* jaialdia 2004an antolatu zuten estreinakoz Andoaingo gaztetxean, eta handik aurrera urtero antolatu izan dute. Oñati, Azpeitia, Añorga, Beasain, Arrasate eta Zumaiako gaztetxeetatik pasa ostean, Elgoibarko gaztetxean egin zuten joan zen asteburuan zortzigarren jaialdia.

## Sinuosek hamabost urte beteko ditu inauterietan

Orain dela hamabost urte hasi zen Sinuose inauterietako martitzen gaua girotzen, eta aurtenera ez dute hutsik egingo. Martitzenean, martxoaren 8an, gaueko 22:30ean hasita, musikarekin esperimentatuko dute Kultur Etxeko sotoan. Iban Urizarrek eta Patxi Zabaletak osatzen dute Sinuose. Malape tabernan estreinatu zuten inauterietako musika saioa, eta azken urteotan Kultur Etxeko sotoan batzen dira musikarekin esperimentatzeko. Elgoibarren eta elgoibartarrentzat sortu zuten Sinuose, eta hamabost urte hauetan era askotako musika saioak eskaini dituzte. Hemendik aurrera, Sinuosek zenbat urte iraungo duen ez dakite, baina argi dute musika egitea gustuko dutela eta elgoibartarrei musika eskaintzen jarraituko dutela.

# MANOLO SANTOS

MUSIKA ESKOLAKO PRESIDENTE OHIA

“Saria neuri eman didate, baina zuzendaritzako kide guztiona da”



Manolo Santos eta Mari Jose Zubiaurre.

**Manolo Santosek musika eskolako presidente kargua laga du 26 urteren ostean, eta zuzendaritzako kideek omenaldia egin diote urte horietan eginiko lanagatik. Musika zalea da Manolo, baina ez da musikaria, eta profesionalki musikarekin zerikusirik ez duen sektorean lan egiten du: eskopetagintzan. Bere lanbideari esker, munduari bira emateko aukera izan du, eta Elgoibarko eskopetak munduko herrialde askotara iritsi direla azaldu du. 63 urte ditu, baina momentuz, ez dauka erretiroa hartzeko presarik.**

**Inazio Bereziartua musika eskolako zuzendaritza utzi duzu, eta omenaldia egin dizute. Zer sentitu zenuen?**

Satisfazio handia. Argi laga nahi dut zuzendaritzako kide guztiontzako omenaldia izan dela. Saria neuri eman didate, eta eskertzen dut, baina sari hau zuzendaritzako kide guztiona da. 26 urte egin ditugu zuzendaritzan, eta inoiz ez da bat besteen gainetik gailendu. Norbait izan behar zen presidentea eta niri tokatu zitzaidan, baina beti talde bat izan gara, eta benetan

diot sari hau denona dela. Zuzendaritzan jendea aldatu da urte hauetan, baina denok oso ondo konpontzen gara, eta hori oso garrantzitsua da.

**26 urte egin dituzu musika eskolako presidente. Zergatik erabaki duzu postua uztea?**

Aldaketaren ordua iritsi da, eta musika eskolako zuzendaritzan jende berria behar da. Taldetik irteten lehenengoa neu izan naiz, lehendakaria. Horrela izan behar zuen, eta kitto! Ez da inolako haserrikerik egon, eta el-

karrekin txikiteatzen segitzen dugu. Lehenago ere saiatu izan gara aldaketak egiten, baina musika eskola kudeatzea ez da lan erraza. Kanpotik kritika asko egin izan dizkigute, baina gero inork ez zuen nahi izaten kargua hartzea. Enpresa bezala funtzionatu izana leporatu digute askotan, baina azken batean, musika eskola enpresa bat da. Hileroko dauzka gastuak eta sarrerak, eta langileei soldata ordaindu behar zaie. Uste baino buruhauste gehiago eman dizkigu. Jose



Inazio Arriolak hartu du orain lehendakari kargua.

### **Nola gogoratzen duzu musika eskolaren hasiera?**

Elgoibarko musika eskola Felix Lodosoren ekimenez sortu zen. Musika eskola sortzeko ideia berea izan zen, eta hainbat bileraren ondoren, lortu zuen proiektua gauzatzea. Drogaren ondorioz garai gogorak bizi genituen herrian, eta gazteentzako irtenbideren bat sortzeko beharra ikusi genuen. Ni politikan nenbilen orduan, eta alderditik ere argi ikusi genuen drogan sartuta zeudenekin ezin genuela ezer egin, baina jende gehiago hor sartu aurretik gazteei aisialdirako irtenbideren bat eskaini behar genielako. Elgoibarren elkarte pila bat daude, eta jende askok egiten du lan musutruk. Hori harro egotekoa da. Guri ere iritsi zitzaigun zerbait egiteko unea, eta musika eskola jarri genuen martxan.

**“Gazteei aisialdirako irtenbideren bat emateko sortu genuen musika eskola”**

### **Zaila izan zen musika eskola sortzea?**

Oso zaila. Behin martxa hartu genionean, ez zen hain zaila izan, baina hasiera gogorra izan zen. Udalak laguntza handia eskaini zizgun, baina beste elkarte batzuei espazioa kendu genien, nolabait esateko. Hau da, ez zegoen lokalik guretzat, eta beste batzuen espazioa bete genuen. Gainera, urtetik urtera, ume gehiago etortzen ziren musika ikastera, eta gero eta leku gehiago behar genuen. Azkenean musika eskola bat egiteko proiektua jarri genuen martxan, eta hortxe dago. Hiru legealdi behar izan ziren musika eskola egiteko. Inazio Bereziartua musika eskola herriarena da, denona.

### **Zer eskaini diozu musika eskolari, eta zer eskaini dizu zuri musika eskolak?**

Nik denbora eta dirua eskaini diot musika eskolari. Musutruk lan egin dugu, eta inork ez du dirurik kobratu. Langile bat daukagu kontratupean, Mari Jose Zubiaurre, eta hark ere, lan orduz gain denbora pila bat eskaini dio

eskolari. Langile profesional bat behar genuen, eta taldean pertsona egokia izanda, ez genuen kanpotik inor ekarri. Musika eskolak niri satisfazio handia eman dit. Kontzertuak, danborradak eta umeek musikan zenbat eboluzionatu duten ikusteak satisfazio ikaragarria ematen du.

### **Nondik datorkizu musikarako zaletasuna?**

Ni ez naiz musikaria izan; dantza izan da nire zaletasuna. Dantzaria izan nintzen, eta dantza irakaslea ere bai. Musika entzutea gustatzen zait, baina ez naiz musikaria. Dena dela, Elgoibarren musika eskaintza oparoa daukagu, eta kontzertu oso onak entzuteko aukera izan dut. Pena bat daukat: koroa desagertu izana. Norbaitek hartu beharko luke koroa berriz sortzeko ardura.

### **Profesionalki eskopeten munduan lan egiten duzu. Armagintza Hiria esaten zaio Elbarri, baina Elgoibarren ere eskopeta garrantzitsuak egin izan dira, ezta?**

Bai, jakina. Herrialde askotan Arrieta enpresa munduko eskopeta egilerik onenen artean dago, eta Espainiako onena da, dudarik gabe. Jende garrantzitsu askok bisitatu du Elgoibar eskopetak erosteko, Espainiako Erregeak eta printzeak, adibidez. Beste edozein bezero bezala hartu izan ditugu, eta bestelako garrantziarik ez ematen saiatu gara. 50 urte daramatzat lanbide honetan, eta pertsona ezagun eta garrantzitsu askorekin egotea tokatu zait. Era berean, jende asko etorri izan da eskopetak nola egiten ditugun ikustera. Elgoibarko eskopetek izen handia dute.

### **Eskopetak saltzeko bidaia asko egin dituzu. Zein leku gustatu izan zaizu gehien?**

Munduari bira emateko aukera izan dut, eta hegoaldeko hemisferioa gustatzen zait bereziki, epelagoa delako. Urtarrilean Estatu Batuetan izan nintzen, eta azaroan Hego Ameriketara egin nuen bidaia. Hori da niri gustatzen zaidana: haragi ona jan, ardo ona edan... Australian eta Asian ere ibilia naiz. Elgoibarko eskopetak mundu osoan zehar daude.

### **Zenbat balio du eskopeta batek?**

Merkeena 4.000 euroren bueltan dabil, eta garestiena 30.000 euro ingurukoa da. Binaka eta hiruak ere saltzen ditugu eskopetak. Neurrira egiten ditugu, eta artisautza nahi duenak, ordaindu egiten du. Eskopeta oso onak egiten ditugu Elgoibarren, baina gure sektorea ez dago oso ondo ikusita, eta ezin dugu propaganda handirik egin.

Gaur egun ehizaz hitz egin beharrean, animaliak hiltzeaz hitz egiten da. Argi utzi nahi dut gauza bat: ehizarik ez balego, gaur egun ditugun espezie asko desagertuta egongo lirakeke. Hegazti asko hiltzea debekatuta dago, eta horiek bizi irauteko basoan beste hegazti asko jartzen dira. Ehiza elkarte gehienek kontrolatu egiten dute ehiatzatzen dituzten kantitate kopurua. Nire ustez, benetakoa ez den irudia hartu du ehizak. Oso gaizki ikusita daude ehiztariak, eta ez nago ados irudi horrekin.

**“Satisfazio handia eman dit musika eskolak”**

### **Krisiak izan du eraginik eskopetagintzan?**

Eragin izugarria! Eskopeta garestietan igarri da, batez ere. Ehiza hobby bat da, eta jendeak dirua soberan duenean zaletasunetan inbertitzen du. Dirua erraz sartzen denean, errazago gastatzen da, baina orain egoera gogorragoa da, eta aberatsak ere ez dute lehengo erraztasunarekin gastatzen. Kapritxoak albo batera utzi ditu jendeak. Gure bezeroak aberatsak dira, eta dirutza ikaragarria dute, baina horiek ere krisi egoeran ez dute dirua erraz gastatzen. Hiru urte gogor daramatzagu, baina egoera hobetzen hasi dela esango nuke. Aurtengoa oraindik latza izango da, baina datorren urtea hobea izango delakoan nago. Jende askok ez ditu Estatu Batuak begi onez ikusten, baina gu hari begira bizi gara. Estatu Batuek doministiku egiten dutenean, hemen gripea harrapatzen dugu, eta Estatu Batuek urtarriean doministiku egiten dute. Azken ferian oso ondo saldu da, eta hori izan daiteke krisitik irteten hasi garen seinalea. Egoera honi buelta eman eta erretiroa lasai hartzea gustatuko litzaidake. Nire lana izugarri gustatzen zait, eta ez daukat jubilatzekeko presarik, baina ordua iritsiko da, eta egoera ekonomiko hobean erretiratzea nahiko nuke.

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaitzeko edo garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **618 734 000**
- Neska gaztea edo umeak zaitzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **616 690 415**
- Gizonezkoa lanerako prest. Eraikuntzan edo base-rian egingo nuke lan gustura, baina edozer hartzeko prest nago. Nire herrialdera itzultzeko hegazkin txartela erosteko dirua behar dut. ☎ **685 212 060**
- Neska gaztea edo umeak zaitzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **606 226 827**
- Neska gaztea edo umeak zaitzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **662 267 569**
- Emakumea tabernak eta lokalak garbitzeko prest. 13:00etatik 17:00etara. Asteburuetan ere lan egiteko prest. ☎ **638 527 489**
- Emakumea nagusiak zaitzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaitzeko prest. Edozein ordutan, eta asteburuetan ere. Esperientziaduna. ☎ **678 972 690**
- Mutil elgoibartarra zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626 490 986**
- Emakume euskalduna adineko emakumeak zaitzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626 490 986**
- Neska garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaitzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **699 813 826**
- Emakumea edozein lanetarako prest. ☎ **943 033 908**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **636 517 025**
- Neska edozein lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **681 212 449**
- Tornugilea lanerako prest. CNC tornuetan 25 urteko esperientzia. ☎ **609 040 872 (Imanol Azpiazu)**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **679 80 903**
- Emakumea sukalde laguntzaile, garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaitzeko prest. ☎ **608 474 923**
- Neska gaztea nagusiak zaitzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Edozein ordutegi. ☎ **699 609 190**

- Neska gaztea nagusiak edo umeak zaitzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **678 972 694**
- Neska edozein lan egiteko prest. ☎ **634 007 292**
- Neska gaztea nagusiak zaitzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. ☎ **646 821 678**
- Emakume euskalduna adineko pertsonak zaitzeko prest. Erizain laguntzailea, esperientziaduna. Arratsaldez edo pare bat orduz. ☎ **685 729 790**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak eta umeak zaitzeko prest. Gauzez edo egunez. ☎ **685 212 060**

**ESKAITZA**

- Emakumea behar dut umeak zaitzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **699 795 994**
- Esperientziadun ile apaintzailea behar da. ☎ **665 708 825**
- Esperientziadun emakumea behar da umeak zaitzeko. ☎ **605 480 813**
- Esperientzia duen edo ama den emakumea behar da haurtxo bat zaitzeko. Zortzi orduko lanaldia. Goizez. ☎ **659 287 122 (arratsaldez deitu)**
- Neska behar da zapatuetan zerbitzari lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **666 579 609**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

- Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo inguruetan. ☎ **698 390 818**
- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**
- Seme-alabarik gabeko boliviarr bikoteak etxea hartuko luke alokairuan. Altzariekin, logela bakarrekia edo bikoa. ☎ **645 555 265**

- Apartamentua salgai Sabiñanigon, Jacatik hamar minutura. 35m<sup>2</sup>, trastelekua eta terraza. Altzariekin, eguzkitsua. ☎ **696 272 311**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **685 212 060**
- Bi edo hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **652 446 228**
- Pisu bila nabil Elgoibarren. ☎ **608 474 923**

**PARTIKULARRAK**

- LH1 eta DBHko klase partikularrak ematen ditut. Bakarka edo talde txikietan. ☎ **686 611 665**
- DBHko matematikako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**

**AUTOAK ETA GARAJEAK**

- Garaje itxia salgai Pista Beltzean. Prezio onean. ☎ **605 705 389**

**BESTELAKOAK**

- 8 urteko txakurra oparitzen dut. ☎ **943 743 561**
- Pultsera bat topatu dut. Udaltzaingoan laga dut.
- Somier artikulatu elektrikoa salgai. 1,05x1,90, neurria aldatzeko hankak, latex koltxoia, eta barandauk. ☎ **943 742 864 (Mikel)**
- Patinete beltz bat galdu dut, lehoi berde baten irudiarrekin. Topatu duenak, mesedez, BARRENERA eraman dezala.
- Urrezko kate bat aurkitu dut, eta Udaltzaingoan laga dut.
- 60 urtekoen bazkaria maiatzaren 28an. Interesatuak 20 euroko bermea sartu behar dute ondorengo kontu korronte zenbaki honetan: 3035 25 00071121796. ☎ **943 740 779 (Mari Karmen)**

ESKERTZA


**JUAN CRUZ URAIN LONGARTE**



*Zu joan zara, baina  
zureganako gure maitasuna ez.  
Ez ditugu inoiz ahaztuko  
izan dituzun  
ilusioa eta bizipoza.*

*2011ko otsailaren 25ean hil zen, 50 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





• Zorionak, **txapeldun**, anaiaren, eta bereziki, iloba Sara eta Junio-  
rren partez. 9 muxu  
izeba Mariren partez.



• Zorionak, **Iratil** Aste-  
lehenean 7 urte beteko  
dituzu eta mozorrotuta  
ederki pasatuko dugu.  
Muxu bat! Aitaxo,  
amatxo eta Urko.



• Zorionak, **Unax**, as-  
teazkenean 7 urte han-  
di beteko dituzulako.  
Etxeko guztien eta be-  
riziki, Alainen partez.



• Zorionak, **Ane**, aste-  
lehenean 5 urte egin  
zenituelako. Mila mu-  
xu, printzesa!




• Konturatu gabe, bi  
urte pasatu dira. Zo-  
rionak, **Aimar**, batez  
ere Oierren partez.



• Zorionak, **Anddel** Ur-  
tebeteko pirata txikia  
zara. Patxo handi bat  
denon partez.



• Zorionak, **Ander**,  
bihar 5 urte egingo di-  
tuzulako, etxeko eta  
bereziki, Mikelen par-  
tez.



• Zorionak, **Junes**,  
gaur urtetxo bat bete  
duzulako! Muxu handi  
bat gurasoen eta anaia  
Einerren partez.



• Mila kilo zorion, **Mar-  
kel**, gaur 5 urte egin di-  
tuzulako. Zure lagunen  
eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Izar**, zure  
bederatzigarren urte-  
betetzean. Muxu handi  
bat familiakoen partez.  
Ondo pasa, printzesa.



• Zorionak **Jone**, sei  
urte betetzean. Muxu  
handi bat guraso eta  
ahizparen  
partez.

**Erretratu bakarrek agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.**  
Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. BARREneko bulegora 12:00ak  
baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

ESKERTZA

## PAKITA ALCELAY ARANGUREN

*Ramon Epelderen alarguna*



*Agur amama, amama agur  
ohore eta bi muxu  
gure artetik joan zara, baina  
gurekin jarraitzen duzu.*

*2011ko martxoaren 1ean hil zen, 82 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

### 3 barixakua

#### Skitaldia

18:00 Ilunabar literarioa  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### 5 zapatua

#### Kirola

10:30 Pilota Eguna  
Ikastolan.

#### Aingeru Guardako Jaiak

11:30 Arnoatera igoera  
Irteera Plaza auzoko tunelpetik.

### 6 domeka

#### Aingeru Guardako Jaiak

12:00 Meza  
Aingeru Guardako ermitan.  
14:30 Bertso bazkaria  
Aizpe elkartean, Andoni Egaña eta Iker Zubeldia bertsolariekin.

### 11 barixakua

#### Skitaldia

20:00 Ongi-etorria  
Mikel Ibañez presoari ongi-etorria egingo diote, Plaza Handian.

### MARTXOAK 8 EMAKUMEEN EGUNA

#### 4 BARIXAKUA

19:00 Erakusketa  
*Emakumeak aurrera egiten badu, munduak ere bai.* Kultur Etxean.

#### 22:30 Bertso saioa

*Ez da kasualitatea.* Bertsolariak: Uxue Alberdi, Ainhua Agirrezaldegi, Onintza Enbeita, Jone Uria eta Beñat Gaztelumendi.  
Kultur Etxeko sotoan.

#### 5 ZAPATUA

10:00 Munduko dantzak  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.  
14:30 Emakumeen bazkaria  
Sigma jatetxean. Izenematea, Pitxintxu opari dendan.

#### 10 EGUENA

17:00 Ipuin kontaketa  
Sexismorik gabeko ipuin kontaketa. Udal Liburutegian.

#### 11 BARIXAKUA

20:30 Antzerkia  
*Ecografías* antzezlan, Herriko Antzokian.

#### 12 ZAPATUA

19:00 Antzerkia  
*Greban gaude* antzezlan, Mendaroko San Agustin antzokian.

### INAUTERIAK 2011

#### 4 BARIXAKUA

15:15 Ikastolako Euskal Inauteria  
Plaza Handian.  
16:30 Mozorro festa. Ludotekan.

#### 5 ZAPATUA

17:00 Atxubixkaraokea. Plaza Handian.  
17:00 Diskojoia, txokolatada eta karaoketa.  
Mendaroko frontoian.  
18:15 Mozorro desfilea. Plaza Handian.  
19:30 Mauxitxa txaranga. Kalejira, zezenzikletekin.  
23:00 Animazioa. Madalako parkean.  
23:30 Mauxitxa txaranga. Kalejira.  
00:30 Mozorro lehiaketa. Madalako parkean.  
01:30 Sari banaketa. Madalako parkean.

#### 6 DOMEKA

18:00 Gelatxo orkestra. Jubilatuen egoitzan.

#### 8 MARTITZENA

16:30 Mozorro festa. Plaza Handian.  
17:00 Kiki, Koko eta Moko pailazoak  
Plaza Handian (Eurria bada, Ikastolan).  
18:30 Mauxitxa txaranga  
Kalejira, erraldoi eta buruhandiekin.  
18:30 Gelatxo orkestra  
Dantzaldia eta mozorro lehiaketa, jubilatuen egoitzan.



#### OKINDEGIA

6 domeka EIZAGIRRE

#### FARMAZIAK (24 orduz)

- 4 Ibañez
- 5 Garitaonandia-Bidasolo
- 6 Garitaonandia-Bidasolo
- 7 Etxeberria (Santa Ana)
- 8 Fernandez
- 9 Yudego
- 10 Zabaleta
- 11 Etxeberria (Erosario)

Fernandez Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

Zabaleta  
Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

#### ZINEA

#### «Biutiful»

4, barixakua: 22:15  
5, zapatua: 19:00/22:15  
6, domeka: 19:00  
7, astelehena: 21:30

#### «Pequeño rey Macius»

6, domeka: 16:30

#### «Canino»

10, eguena: 21:30



Inauteriak Ludotekan:  
**Ostiralean MOZORRO FESTA,**  
astelehenean Mario Karts  
txapelketa eta asteartean  
pailazoan emanaldira irteera

Etorri bihar 17:00etan  
**mozorroak atondu eta**  
**koreografiak ensaiatzera!**  
18:30erako Plazan egongo gara.





# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



- Euskarazko eta gaztelerazko klaseak
- Credituxarekin ordaintzeko erraztasunak



## ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

## 5 EGUNEKO

## TEORIKAKO

## IKASTARO

## TRINKOAK

### LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.fjlocoso.euskalnet.net](http://www.fjlocoso.euskalnet.net)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 25 45 22

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana Iturgintza eta Instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia  
☎ 943 74 30 94



## Sarrailagintza Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)  
☎ 943 701 391  
[www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87

